

## Merkatuaren Segmentazioa

Gure xede-publikoa mundu osoko 16-35 urte bitarteko pertsonak dira, praktikatu nahi duten hizkuntza jada beste bide baten bitartez ikasten ari direnak, orokorrean lan- edo formakuntza-kontuengatik, baina baita zaletasun moduan ere.

Adin-talde berean, beraien interesak partekatzen dituen jende berria ezagutu eta diru pixkat irabazi nahi duten pertsonak bilatzen ditugu gure harpidetza-sistema funtzionatu ahal izateko; orokorrean, pertsona hauek oraindik ikasten egongo dira edo behin-behinekoa den beste lanbide bat izango dute, eta denbora librean beraien hizkuntza irakasteko prest egon behar dira.

Badaude gaur egun hizkuntzak ikasi nahi dituzten hirugarren adineko pertsona gero eta gehiago, baina ziur aski ez lirateke gurea bezalako aplikazio bat erabiltzeko prest.

Sare-sozialak marketing-plataforma nagusi bezala erabiliko ditugu gure helburu den demografiara heltzeko erarik errezena delako. Bertan eskegitako iragarkiak irudi profesionala eman behar dute, aplikazioa fidagarria dela adierazteko, baina aldi berean ez dira serioegiak izan behar, aplikazioa ikasteko era bat edo lan bat baino lagunak egiteko balio duela azpimarratuz esloganen eta irudien bitartez.



Diseinua (irudi guztiak CC lizentzia dute):  
Lur planetaren irudia: Linuxerist  
Bunbuiloa: Ilya, Simpleshow Foundation-en